

mikel lizarralde

Udako garai lasaia igaro ondoren —ia ez da diskorik kaleratzen sasoi horretan—, euskal disketxeak prest daude dagoeneko udazkeneko lanari heltzeko. Oraindik goiz da jakiteko Durangoko Azoka bitartean zein disko iritsiko zaizkigun, baina gutxienez aurrerapen bat egiteko moduan gaude. Hauek dituzue udazkena errazago ermaten lagunduko diguten lan batzuk.

Oihuka

Potrotaino: Potrotaino punk talde beteranoaren lan berriarekin agurtuko du Oihuka disketxeak udazkena. Orain arte esparru alternatiboan kaleratu dituzte taldeak bere diskoak, baina hirugarrena Oihukaren eskutik iritsiko da dendetara. Diskoa urriaren hasieran entzun ahal izango dugu.

Idi Bihotz: Oraindik ez du izenbururik Idi Bihotzen laugarren lana. Diskoa hilabete honetan grabatuko dute bilbotarrek, Andoaingo Garate estudioetan eta Haritz Harregi gidari dutela, eta azaroan argitaratuko dute. Aurreko lanetan bezala, heavy klasiko eta melodikoa landu du taldeak.

Gatibu: Alex Sarduren (Exkixu) ahotsa duen proiektu berria da Gatibu. Inaki Uohoren estudioan grabatu dute diskoa eta Batiz arduratu da ekoizpenaz. Alexek berak egin ditu hitz gehienak eta, musikari dagoenez, gitarretan oinarritutako kantuek osatzen dute diskoa. Extremoduro taldeko Roberrek bi abestitan hartu du parte.

Txapelpunk: Punk eta rock ildoan segitzen du Inigitok, eta Txapelpunken bigarren diskoa horren lekuko izango da. Azaroan kaleratuko dute diskoa.

Kaotiko: Arabarrek bigarren diskoa grabatuko dute aurki. Lehenengo lanak oso harrera ona izan zuen, eta honekin punk eta rock zirkuituan finkatu nahi du taldeak. Diskoa, azarorako.

Elkarlanean

Benito Lertxundi: Azken sei urteotan sortutako 11 abesti berri bildu ditu Benito Lertxundik *Nere ekialdean* disko berrian. Anjel Unzu izan du lagun ekoizpen lanetan, eta Jean Phocasek grabatu du diskoa. Diskoa urriaren kaleratuko du Elkarlanean-ek eta, CD eta kasete formatuetan ez ezik, DVDn ere azalduko da.

Olatz Zugasti: Elearen lainoa izenburua izango du Olatz Zugastiren hirugarren diskoak. Oraingo honetan Olatzek berak sorturiko hamabi abesti bildu ditu diskoan. Hitzak, bestalde, Itxaro Bordarenak, Henriette Airerenak eta Olatzenak berarenak dira.

Musika omen da bihotz tristeak alaitzeko modurik eraginkorrena.

Oporren ondorengo egonezina nolabait sendatzeko, udazkena hainbat disko berrirekin iritsiko zaigu. Artista ezagun zein berriek beren lanak aurkeztuko dituzte datozen hilabeteotan.

Udazkeneko musika hostoak

Laja eta Mikel: Azkoitiko trikitilariak Mikel Alustiza zumarragarrarekin egin du lan *Eguzki begi* diskoan. JC Perezen gidaritzarekin osatu dute diskoa, eta Triki azpizigiluan aterako da.

Peio eta Pantxo: *Lapurdiko koblakariak* izenburua izango du Peio eta Pantxoaren disko berriak, eta Lapurdiko kantu zaharren bilduma eskainiko du. Azaroan argitaratuko dute.

Amaraun: Durangoko talde gazte honek estreinakoa aterako du, jazz, tradizioa eta inprobisazioa uztartzen dituen lan bat.

Joserra Senperena: La Buena Vida, Duncan Dhu eta Bide Ertzean-ekin lan egin ondoren, Joserra Senperena pianistak jazz eta pop moldeko diskoa kaleratuko du. Suso Saizek ekoitzi du lana eta Diego Vasalloren kolaborazioa izan du ahotsetan.

Metak

Fermin Muguruza: Irailaren 27an iritsiko da *In-komunikazioa*, Fermin Muguruzaren disko berria. Irungoak Andoaingo Garate estudioetan grabatu du CDa, Kaki Arkarazorekin batera, eta Euskal Herriko zein beste herrialde batzuetako musikariak izan ditu lagun. Gero, Parisen masterizatu du diskoa.

Skunk: *Kinki* deituko da Skunk taldeak urriaren argitaratuko duen disko berria.

Sorkun: Metak etxeak urriaren kaleratuko du Kashbad taldeko abeslariaren bakarkako lana. *Onna* izenburua izango du eta rock, pop eta elektronika ukituak izango ditu.

Askoren artean: *Basque Electronic Diaspora 3* bilduma azaroan iritsiko da dendetara.

Betagarri: Remixen diskoa kaleratu ostean, Gasteizko taldeak 6 izenburuko diskoa kaleratuko du azaroan.

Xabier Montoia: *Lagunak, adiskideak... eta beste hainbat etsai* diskoa kaleratu zuenetik hiru urte igaro direnean, Xabier Montoia disko berri batekin itzuliko da azaroan.

Gaztelupeko Hotsak

Bide Ertzean: Hilabete honetan bertan aterako da taldearen az-

ken lana: *Maite out*. Hirugarren disko luze horretan pop estiloan sakondu dute taldekoek, eta Joserra Senperenak teklaturekin eta Hammond organoarekin lagundu die. Andoaingo Garate estudioetan grabatu du taldeak diskoa, Kaki Arkarazoren laguntzarekin. Gainera, berezitasun bat izango du lan berriak: erosle bakoitzak aukera izango du —kode berezi bat erabiliz— gailuk *Bakarrik bahago neguan* kantuen gainean egin duen remixa eskuratzeko.

Igor Arzuaga: Exkixun eta Mikel Urdangarinekin aritu ondoren, Igor Arzuagak bere bakarkako lehenengo diskoa grabatu du (*Argi izpi bat*). Audiokoak Javi

Cepeda gitarrista (Danba) izan du laguntzaile. Hilabete honetan kaleratuko du disketxeak.

Mikel Urdangarin: *Heldu artean* deituko da urriaren kaleratuko duen diskoa. Laugarren lan horretan bere estiloari eutsi dio; baina, diotenez, urbanoagoa atera zaio azken emaitza.

Petti: Bi disko ilun eta sakon kaleratu ondoren, Berako abeslaria lan elektriko batekin itzuliko da urrian. *Etxeko uzta* gitarretan oinarritutako diskoa da eta rock amerikarraren ildoan kokatzen da. Mark Lanegaren eta Mikel Laboaren bertsio baina osatu ditu Petti.

Splitt 77: Bilbon sortutako talde honek *Antenna* deituriko lana grabatu du, Jose Lastra teknikaria gidari zutela. Urriaren dendetan izango da.

Gor

Skalariak: Iruñeko taldeak *Street's ska* bideoa kaleratuko du hilabete honetan. Lan honek kontzertuetako irudiak ez ezik, taldearen jatorriari buruzko ikuspegi dokumentala eskainiko du.

Skabeche Riber Band: Zaragozako taldearen lehenengo diskoa (*La increíble invasión de los mejillones zebra*) irailean kaleratuko du Gor-ek. Doinu jamaikarrak, skacorea, raggamuffina eta bestelako soinu beroak uztartzen ditu.

Jousilouli: Bigarren diskoan hainbat kolaboratzaile izango dituzte gipuzkoarrek. Drogasek, Aitor Gorosabelek eta Gorka Urbizuk hartu dute parte, besteak beste, diskoan. Urriaren izango da kalean.


Asgarth: Añorgako heavy taldeak urriaren izango du bere hirugarren diskoa dendetan.

Ados: Hemendik At! taldearekin ibilbide arrakastatsua egin ondoren, Stella eta Eurnek beste talde bat osatu dute: Ados. Taldearen lehenengo diskoa azaroan entzungo dugu.

Bonberenea

Askoren artean: *Oztopo guztien artean* deituko da Tolosako Bonberenea etxean jo izan duten edota Bonberenearekin lotura duten hainbat taldek osatu duten bilduma. 23 taldek hartu dute parte CDan, eta pare batek izan ezik, guztiek argitaratu gabeko abestiak grabatu dituzte. CDarekin batera, 24 orrialdeko liburuxka prestatu dute, Bonberenearen inguruko informazioa emateko. Taldeak eta bakarlariak hauek dira: Anari, Akauzazte, Autoa, El

Corsal Desastre, Borrokan, Xabier Montoia, Onddo, Petti, Batzuk, Deabruak Teilatuetan, Señor No, NCC, Discipulos de Dionisos, Kuraia, Lisabö, Selam, Lif, Lobo Electrico, Humus, Perros Deshidratados, Selekthak Kolektiboa, Inoiz eta Tsezne.

**Idi Bihotz****Fermin Muguruza****Petti****Jousilouli**